

5/2021 EBAZPENA, AZAROAREN 5EKOA

**PRESIDENTEA:** María Barrena Ezcurra.

**MAHAIKIDEA:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea  
Laraudogoitia.

**IDAZKARIA:** Iñigo Alvear Lekue

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak, arestian adierazitako kideek osatutakoak, honako EBAZPEN hau eman du NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK aurkeztutako erreklamazioan, eta María Barrena Ezcurra andrea da txostengilea, Batzordearen iritzia adierazi duena.

### EGITATEZKO AURREKARIAK

**LEHENENGOA.** AUTOBUSES LA UNIÓNeK 2021eko ekainaren 9an aurkeztu zion Garraioak, Mugikortasuna eta Lurralde Kohesioa Sustatzeko Sailari honako informazio-eskaera hau:

1.- *Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikulua arabera, Autobuses la Unión, Bilbo-Gasteiz A3700 zerbitzuen ustiatzailea den aldetik, interesduntzat jotzen da, hain zuzen ere Bizkaiko Foru Aldundi txit goren honek erabilera bereziko garraio erregularerako (hemendik aurrera DRI) dituen eta ematen dituen indarreko baimenak zein diren jakiteko.*

2. Gardentasunari buruzko abenduaren 9ko 19/2013 Legearen 17. artikulua babesean, nire ordezkatuari helaraztea DRIn kopia edo, bestela, haien existentziari buruzko informazioaren edo elkarteek egindako eskaeren kopia, indarraldi-epeak, geldialdiak eta kolektibo espezifikoiari buruzko edukiak. Horren guztiaren helburua erabilera orokorreko garraio erregularraren zerbitzu publikoa behar bezala betetzen dela bermatzea da, informazioa garrantzitsua baita Bizkaiko lurraldean jarduera sektore horren berezko merkatua behar bezala garatzeko, eta eragin zuzena nik

RESOLUCIÓN 5/2021, DE 5 DE NOVIEMBRE

**PRESIDENTA:** María Barrena Ezcurra.

**VOCAL:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea  
Laraudogoitia.

**SECRETARIO:** Iñigo Alvear Lekue.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha pronunciado la siguiente RESOLUCIÓN en la reclamación formulada por ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN, actuando como ponente Dña. María Barrena Ezcurra, quien expresa el parecer de la Comisión

### ANTECEDENTES DE HECHO

**PRIMERO.** AUTOBUSES LA UNIÓNeK presentó el 9 de junio de 2021, al Departamento de Transportes, Movilidad y Cohesión del Territorio la siguiente solicitud de información pública:

1.- *Que de acuerdo con el artículo 4 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Autobuses la Unión, en calidad de explotadora de los servicios A3700 Bilbao-Vitoria posee la condición de interesado a los efectos de conocer cuáles son las vigentes autorizaciones de Transporte Regular de Uso Especial (en adelante DRI) existentes y concedidas por esta excelentísima Diputación Foral de Bizkaia.*

2. *Que al amparo del artículo 17 de la Ley de Transparencia 19/2013 de 9 de diciembre, se dé traslado a mi representada de copia de los DRI o alternativamente de la información relativa a su existencia o solicitudes cursadas por las diferentes asociaciones, plazos de vigencia, paradas, y contenidos relativos al colectivo específico al que se dedica. Todo ello con vocación de garantizar el buen ejercicio del servicio público de transporte regular de uso general y por ser esta información de relevancia para el correcto desarrollo del mercado propio de este*



ordezkutzen dudan enpresaren eta administrazioaren beraren interesetan.

sector de actividad en el Territorio de Bizkaia, con afectación directa a los intereses de mi representada y de la propia administración.

Ekainaren 14an aurkeztutako beste idazki baten bidez, hau adierazi zuen Autobuses la Uniónek:

Mediante nuevo escrito presentado el 14 de junio, Autobuses la Unión señaló que:

1. 2021eko ekainaren 9an, nik ordezkutzen dudan pertsonak erregistro bidez eskatu zuen, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 4. artikularen arabera betiere, Autobuses la Unión, Bilbo-Gasteiz A3700 zerbitzuen ustiatzailea den aldetik, interesdun izatea, Bizkaiko Foru Aldundi txit gorenak erabilera bereziko garraio erregularraren (hemendik aurrera DRI) arloan indarrean dituen baimenak zein diren jakiteko.

1. Que el pasado 9 de junio de 2021 mi representada solicitó por registro de acuerdo con el artículo 4 de la Ley 39/2015, de 1 de Octubre del Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas, Autobuses la Unión, en calidad de explotadora de los servicios A3700 Bilbao-Vitoria posee la condición de interesado a los efectos de conocer cuáles son las vigentes autorizaciones de Transporte Regular de Uso Especial (en adelante DRI) existentes y concedidas por esta excelentísima Diputación Foral de Bizkaia

2. Zehazki, nire ordezkatuaren interesa da informazio hori lortzea administrazio txit goren honek baimendutako DRletatik, edozein ikasle-elkarteri Araba eta Bizkaia arteko ibilbideak egiteko.

2. Que concretamente el interés de mi representada es obtener esta información de los DRIs autorizados por esta excelentísima administración a cualquier asociación estudiantil para hacer recorridos entre Álava y Bizkaia.

**BIGARRENA.** Aurreko eskaerari erantzuteko jarraitutako prozeduran, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailak entzunaldiaren izapidea eskaini zien Altube Unibertsitate Elkarteari eta Nerbioi Aran Unibertsitate Elkarteari.

**SEGUNDO.** En el procedimiento seguido para dar contestación a la solicitud anterior, el Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible habilitó trámite de audiencia a la Asociación Universitaria Altube, y a la Asociación Universitaria Nerbioi Aran.

Altube Unibertsitate Elkarteak alegazio-idazkia aurkeztu zuen, Autobuses la Unión elkarteak egindako informazio-eskaera ezesteko eskatzeko. Izan ere, ez du interesik elkarteak kontrataturiko operadoreei garraio-zerbitzu erregularrarako behar den baimena emateko Bizkaiko Foru Aldundiak izapidetutako prozeduran eta egindako eskaerak ez du tokirik Gardentasunari buruzko 1/2016 Foru Arauan, zeren eta hirugarren elkarte batek eginiko jarduera ekonomikoa oztopatu besterik ez baitu nahi eskatzaileak. Ondorioz, eragina du horrek hirugarrenen interes komertzialetan eta ekonomikoetan.

La Asociación Universitaria Altube presentó escrito de alegaciones en el que solicitaba la desestimación de la solicitud de información efectuada por Autobuses la Unión, por considerar que no es interesada en el procedimiento tramitado por la Diputación Foral de Bizkaia para el otorgamiento a los operadores contratados por la Asociación de la autorización necesaria para prestar el servicio de transporte regular; ni la petición causada tiene encaje en la Norma Foral 1/2016 de Transparencia al pretender el solicitante únicamente entorpecer la actividad desarrollada por la Asociación, viéndose afectados intereses comerciales y económicos de terceros.

Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Saila alegazio-izapidea Nerbioi Aran Unibertsitate Elkarteari jakinarazten saiatu zen, Laudioko udalerrian, eta itzuli egin zuten helbide ezagunik ez zuelako. Jakinarazpena ezin gauzatu ondoren, Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen 2021eko

El Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible intentó la notificación del trámite de alegaciones a la Asociación Universitaria Nerbioi Aran, en el municipio de Laudio/Llodio, que fue devuelta por domicilio desconocido. Tras el fracaso en la notificación, la misma fue efectuada a través de



uztailaren 9an.

anuncio en el Boletín Oficial del Estado de 9 de julio de 2021.

**HIRUGARRENA.** Prozedura amaituta, Garraioen zuzendari nagusiaren 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenaren bidez erantzun zitzaion eskaerari. Horren bidez, zati batez onartu zen eskatutako informazioa eskuratzeko aukera, zehazki, Altube Unibertsitate Elkarteari eta Nerbioi-Aran Unibertsitate Elkarteari dagokienez 2020/2021 ikasturtean baimendutako ibilbideei, ordutegiari eta geldialdiei buruzkoa, eta gainerakoei uko egin zitzaion.

**TERCERO.** Terminado el procedimiento, la solicitud causada fue contestada por resolución de 2 de agosto de 2021 del Director General de Transportes, en la que se concedía parcialmente acceso a la información solicitada, en concreto a los itinerarios, horarios y paradas autorizados con respecto a la Asociación Universitaria Altube y a la Asociación Universitaria Nerbioi Aran durante el curso 2020/2021, rechazando el acceso al restante

**LAUGARRENA.** – Nerbioi Aran Unibertsitate Elkarreak, 2021eko abuztuaren 6an, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailari idazki bat bidali zion, administrazio-espedita, interesdunei entzuteko eskaerak eta haiek egindako alegazioak jakinarazteko eskatzeko.

**CUARTO.** – El 6 de agosto de 2021 la Asociación Universitaria Nerbioi Aran presenta escrito dirigido al Departamento de Transportes y Movilidad sostenible en el que solicita le sea puesto de manifiesto el expediente administrativo, las solicitudes de audiencia a los interesados y las alegaciones evacuadas por los mismos.

**BOSGARRENA.-** NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK, 2021eko irailaren 6an postan aurkeztutako idazkiaren bidez, aurreko ebazpenaren aurkako erreklamazioa aurkeztu zuen Gardentasun Batzorde honetan. Bertan adierazten denez, NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEA irabazi-asmorik gabeko erakundea da, unibertsitate-kolektiboak mugikortasunari dagokionez dituen beharrei erantzuteko sortua.

**QUINTO.-** Mediante escrito presentado en correos el 6 de septiembre de 2021 la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN presentó reclamación ante esta Comisión de Transparencia contra la resolución anterior, en la que hace constar que la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN es una entidad sin ánimo de lucro constituida con el propósito de atender a las necesidades del colectivo universitario referidas a la movilidad.

Horretarako, NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK hainbat operadoreekin kontratatu du erabilera bereziko autobusean pertsonak errepidez garraiatzeko zerbitzu erregularra, unibertsitate-kolektiboarentzat, Bizkaiko Lurralde Historikoko hainbat unibertsitate-ikastetxe eta -eskoletan.

Para ello, la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN contrata con distintos operadores la prestación de servicios de transporte regular de personas por carretera en autobús de uso especial para el colectivo universitario a distintos centros y escuelas universitarias en el Territorio Histórico de Bizkaia.

Kontraturiko operadore horiek izapidetu dituzte, urtero, foru administrazioan erabilera bereziko garraio erregularren baimenak (DRI), erabilera orokorreko zerbitzu erregularren erabiltzaileak ez diren erabiltzaileen beharrik betetzeko beharrezkoak diren zerbitzuei dagozkienak hain zuzen.

Son esos operadores contratados quienes han venido tramitando anualmente ante la Administración foral las autorizaciones de transporte regular de uso especial (DRI) correspondientes a los servicios necesarios para garantizar la satisfacción de las necesidades de las personas usuarias, diferentes de las personas usuarias del servicio regular de uso general.

Errekurtsoa jarri duen elkartearen ustez, 2021eko

La Asociación recurrente considera que la



abuztuaren 2ko ebazpena zuzenbidearen aurkakoa da, arrazoi hauengatik:

Lehenengoa.- DRlen benetako titularrei ez zaie entzunaldi-izapiderik egin, haien edukia lehiakide bati jakinarazi zaio, eta horrek defentsarik eza eragiten die. SAIP-2021-032 espedientean, Aldundiak ez zituen deitu DRlen operadore titularrak Autobuses La Unión SAK egindako informazio-eskaerari alegazioak aurkeztera. Horren berri unibertsitate-elkarte biri baino ez zitzaion eman: NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEARI ETA ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEARI.

Alabaina, unibertsitate-elkarte horiek ez dira foru administrazio eskudunean bazkideei zerbitzuak eman ahal izateko beharrezkoak diren DRIak urtero izapidetu dituztenak, eurek kontrataturiko operadoreak baino. Hau da, baimenen titularrak ez dira NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEA eta ALTUBE UNIBERTSITATE ELKARTEA, haiek kontrataturiko operadoreak baizik.

39/2015 Legearen 4.1.a) artikularen arabera, SAIP-2021-032 espedienteko interesdunak elkarte errekurtsogilearen hornitzaileak dira, eta ez, berez, elkarte hori.

Akats horren ondorioz, Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen zuzendari nagusiaren 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpena erabat deuseza den administrazio-egintza bihurtzen da, APAPELen 47.1 artikularen a) eta e) letretan ezarritakoaren arabera.

Erreklamazioen Batzorde honi eskatzen dio administrazio-egintza baliorik gabe uzteko eta SAIP-2021-032 prozeduraren atzeraeragina agintzeko, prozedura APAPELen aipaturiko manuak errespetatuta izapidetzen dela ziurtatzeko, alderdi interesdun guztiei helarazita Autobuses La Unión SAKen informazio-eskaera, eta entzunaldiaren izapidea emanda, ebazpena eman aurretik beren eskubideari komeni zaiona alegatzeko.

Bigarrena.- Autobuses La Unión SA ez da interesduna. Ezin da ulertu Autobuses La Unión SAK interesa duenik Administrazio honek NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK kontratatutako operadoreei 2020-2021 ikasturtean erabilera orokorreko garraio-zerbitzu

resolución de 2 de agosto de 2021 es contraria a Derecho, por los siguientes motivos:

Primera.- Falta de trámite de audiencia a los verdaderos titulares de los DRIs, cuyo contenido ha sido revelado a un competidor, lo que ocasiona indefensión a los mismos. En el expediente SAIP-2021-032 la Diputación no emplazó a los operadores titulares de los DRIs para que presentaran alegaciones a la solicitud de información realizada por Autobuses La Unión, SA. Únicamente se dio traslado de ello a dos asociaciones universitarias: la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN; y, por otro lado, la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA ALTUBE.

Sin embargo, no son estas asociaciones universitarias, sino los operadores contratados por ellas quienes han venido tramitando anualmente ante la Administración foral competente los DRIs necesarios para poder prestar los servicios a los asociados. Es decir, los titulares de las autorizaciones no son la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN ni la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA AL TUBE, sino los operadores contratados por ellas.

Con arreglo al artículo 4.1.a) de la Ley 39/2015, los interesados en el expediente SAIP-2021-032 son los proveedores de la Asociación recurrente y no, en puridad, esta.

Dicho vicio, convierte la Resolución del día 2 de agosto de 2021 del Director General de Transportes de la Diputación foral de Bizkaia, en un acto administrativo radicalmente nulo de conformidad con lo establecido en los apartados a) y e) del artículo 47.1 de la LPACAP

Solicita de esta Comisión de Reclamaciones que deje sin validez el referido acto administrativo y ordene la retroacción del procedimiento SAIP-2021-032 para asegurar que el mismo se tramita con respeto a los referidos preceptos de la LPACAP, trasladando a todas las partes interesadas la solicitud de información de Autobuses La Unión, SA y concediéndoles trámite de audiencia para alegar lo que a su derecho convenga previa su resolución.

Segunda.- Autobuses La Unión, SA no ostenta la condición de interesado. No puede considerarse que Autobuses La Unión, SA sea parte interesada en el procedimiento tramitado por esta Administración para el otorgamiento a los operadores contratados por la



erregularerako beharrezko baimena (2020) emateko izapidetutako prozeduran, ezta 2021-2022 ikasturtean ere.

Arrazoi hauengatik: (i) Autobuses La Unión, SA enpresak ez zituen prozedura horiek sustatu; (ii) Autobuses La Unión, SA ez da Aldundiak nik ordezkatzeko dudak enpresak eskatutako zerbitzuak baimentzeko (DRI) hartutako erabakien eraginpean egon zitezkeen eskubideen titularra; eta (iii) Autobuses La Unión, SA enpresa ez zen baimenen eraginpean egon zitezkeen interes legitimoen titulara ere (DRI), eta ez zen horietan agertu ere.

Hirugarrena.- Autobuses La Unión SAREN eskaera ere ezin zen justifikatuzat jo, erabilera orokorreko garraio erregularraren zerbitzu publikoa behar bezala ematen dela bermatzeko ustezko asmoaren itzalpean; izan ere, merkataritza-sozietate horren asmoa da lehian ari diren operadoreek kolektiboek eskatutako garraio-zerbitzuak eman ahal izatea eta merkataritza-informazioa legez kanpo lortzea, beren jarduera ekonomikoaren emaitza hobetzen saiatzeko hain zuzen ere. Hala, merkataritza-sozietate eskatzaileak zerbitzuen erabiltzaileei buruzko informazio sentikorra eta konfidentziala lortu nahi du, soilik helburu komertzial hutserako.

Hori dela-eta, Autobuses La Unión SAREN eskaerak ez du inolako oinarririk, ez legitimaziorik, eta, beraz, ez zitzaion inongo sarbiderik eman behar -ezta partzialki ere- eskatutako informazioari, 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenak erabaki zuen bezala.

Autobuses La Unión SAREN eskaerak Bizkaiko Lurralde Historikoko 1/2016 Foru Arauaren abusa dakar berekin. Bizkaiko Batzar Nagusiek, 1/2016 Foru Araua onartzean (3.1 artikulutik ondorioztatzen den moduan), foru sektore publikoaren jardunaren gardentasuna bermatu nahi izan zuten, herritarrei informazio erabilgarria emateko, erakunde horien "gobernuekintzaren eta administrazio-ekintzaren zenbaketa eraginkorra" egiteko.

Helburu horrek interes legitimoa justifikatzen du eta

ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN de la autorización (2020) necesaria para prestar el servicio de transporte regular de uso general durante el curso 2020-2021, así como tampoco lo estará respecto del curso 2021-2022.

Ello debido a los siguientes motivos: (i) Autobuses La Unión, SA no promovió dichos procedimientos; (ii) Autobuses La Unión, SA no es titular de derechos que pudieran resultar afectados por las decisiones de la Diputación de autorizar (DRI) los servicios solicitados por mi representada; y, (iii) Autobuses La Unión, SA ni tan siquiera es titular de intereses legítimos que pudieran resultar afectados por las autorizaciones (DRI), ni tampoco se llegó a personar en los procedimientos administrativos.

Tercera.- Tampoco podía considerarse justificada la solicitud de Autobuses La Unión, SA bajo la presunta vocación de garantizar el buen ejercicio del servicio público de transporte regular de uso general, porque lo que en realidad pretende dicha mercantil es evitar que los operadores que compiten con la misma puedan prestar normalmente los servicios de transporte demandados por distintos colectivos y obtener ilegítimamente información comercial con la cual tratar de mejorar el resultado de su actividad económica. Así, la mercantil solicitante pretende obtener información sensible y confidencial sobre las personas usuarias de los servicios con una finalidad pura y exclusivamente mercantil.

Es por ello que la solicitud de Autobuses La Unión, SA carece de cualquier fundamento y legitimación, por lo que en ningún momento debería haberse concedido acceso alguno -ni siquiera de manera parcial- a la información solicitada, tal y como acordó la Resolución de 2 de agosto de 2021.

Cuarta.- La solicitud de Autobuses La Unión, SA supone un abuso de la Norma Foral 1/2016 de este Territorio Histórico de Bizkaia. Las Juntas Generales de Bizkaia pretendieron al aprobar la Norma Foral 1/2016 (como resulta del artículo 3.1) garantizar la transparencia de la actuación del sector público foral para brindar a la ciudadanía información útil mediante la cual "llevar a cabo un escrutinio eficiente de la acción de gobierno y de la acción administrativa" de dichas instituciones.

Dicha finalidad justifica el interés legítimo y permiten





informazio publikoaren eskaerak izapidetzeko onartu ahal izatea ahalbidetzen du, baina ez dira onartu behar abusuzkoak direnak, legearen beraren gardentasun-helburuarekin justifikatu gabe.

Hori gertatzen da kasu honetan, irabazi-asmorik gabeko operadore ekonomiko batek Bizkaiko Foru Aldundiari eskatzen dion dokumentazioak eta informazioak ez baitute zerikusirik sektore publikoaren gardentasunak babestu eta babesten dituen interesekin. Autobuses La Unión SAK merkataritza-helburuekin eta helburu partikularrekin behar duen informazioa da, NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK egiten duen jarduera oztopatzen saiatzeko.

Bosgarrena.- Era berean, ez zen bidezkoa Autobuses La Unión SAKen eskaera baiestea, merkataritzaren eta enpresaren aldetik sentikorra delako, Gardentasunari, informazio publikoa eskuratzeko bideari eta gobernu onari buruzko 19/2013 Legearen 14.1.h) art.aren eta 1/2016 Foru Arauaren 21.g) art.aren babesean; izan ere, artikulua ezartzen du informazioa eskuratzeko eskubidea mugatu ahal izango dela hura eskuratzek kalte egiten badie interes ekonomiko eta komertzialei.

Autobuses La Unión SAK, bere eskaeraren bidez, merkataritza eta enpresari buruzko informazio sentikorra lortu nahi zuen, bere alde erabiltzeko, hala nola 2021-2022 ikasturtean merkataritza-ekintzak egiteko, edo Bilbo eta Gasteiz arteko erabilera orokorreko garraio erregularraren zerbitzu publikoa kudeatzeko emakidaren lizitazioan parte hartzeko, duela urte batzuk hasi behar baitzen.

**SEIGARRENA.** 2021eko irailaren 9an, Gardentasun Batzorde honek Garraioen Zuzendaritza Nagusiari eskatu zion jarraitutako espedientea bidaltzeko, baita bertan hartutako ebazpenaren aurka eginiko erreklamazioari buruzko txostena ere.

Espedientea eta txostena batzorde honi bidali zitzaizkion aurtengo irailaren 27an.

Garraioen zuzendari nagusiak emandako txostenak dakarrenez, jarritako erreklamazioa epez kanpo aurkeztu da, 2021eko abuztuaren 4an errekurritutako ebazpena jakinarazi zelako eta errekurtsioa irailaren 6an aurkeztu zelako, hilabeteko epea igarota. Modu subsidiarioan, errekurtsogileak egindako alegazioak aztertzen ditu txostenak, alegazio horiek atzera bota behar direla ulertuta.

que las solicitudes de información pública puedan llegar a ser admitidas a trámite, debiendo inadmitirse las que tengan un carácter abusivo no justificado con la finalidad de transparencia de la propia Ley

Lo cual sucede en este caso, en el que un operador económico con ánimo de lucro reclama a la Diputación Foral de Bizkaia una documentación e información que no tiene nada que ver con los intereses tutelados y protegidos por la Transparencia del sector público. Se trata de una información que Autobuses La Unión, SA requiere con fines mercantiles y particulares, para tratar de entorpecer la actividad desarrollada por la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI ARAN.

Quinta.- Tampoco procedía estimar la solicitud de Autobuses La Unión, SA por ser sensible comercial y empresarialmente, y ello al amparo del artículo 14.1.h) de la Ley 19/2013, de transparencia, acceso a la información pública y buen gobierno, y del artículo 21.g) de la Norma Foral 1/2016, que establece que el derecho de acceso podrá ser limitado cuando acceder a la información suponga un perjuicio para los intereses económicos y comerciales.

Autobuses La Unión, SA a través de su solicitud, pretendía obtener información sensible comercial y empresarialmente a utilizar a su favor, como por ejemplo para desarrollar acciones comerciales en el curso 2021-2022, bien para concurrir en la licitación de la concesión de gestión del servicio público de transporte regular de uso general entre Bilbao y Vitoria que debiera haberse iniciado hace años.

**SIXTO.** El 9 de septiembre de 2021 esta Comisión de Transparencia solicitó a la Dirección General de Transportes, la remisión del expediente seguido, así como informe sobre la reclamación promovida contra la resolución adoptada en el mismo.

El expediente y el informe fueron remitidos a esta Comisión el 27 de septiembre del año en curso.

En el informe emitido por el Director General de Transportes se señala que la reclamación interpuesta lo ha sido fuera de plazo, por haberse notificado la resolución contra la que se recurre el día 4 de agosto de 2021, y haberse presentado el recurso el 6 de septiembre, habiéndose superado el plazo de un mes. Subsidiariamente el informe analiza las alegaciones realizadas por la recurrente



entendiendo que las mismas deben ser rechazadas.

## ZUZENBIDEKO OINARRIAK

**LEHENA**- Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunaren 2016ko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikulua bidez sortu zen.

29.1.1 artikulua erekin bat etorriz, Foru Arau honen 2. artikulua dagokionez, Erreklamazioen Batzordeak izango du Bizkaiko Foru Aldundiaren eta foru erakunde autonomoen, foru enpresa eta erakunde autonomoen, merkataritzako foru sozietateen, foru fundazioen, foru partzuergoen eta arestian aipatu den zerrendakoak ez diren zuzenbide publikoko beste foru erakunde batzuen informazio publikoa eskuratzeko eskubidea berariaz edo ustez ukatzearen aurkako erreklamazioak ebatzeko eskumena.

**BIGARRENA.** Bigarrena. Errekurtsogileak planteatutako gaiak aztertu aurretik, erreklamazioa epearen barruan sustatu den aztertu behar da.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 24. artikulua 5. zenbakia honako hau zehazten du: "Aukerako berraztertze errekurtsua alde batera utzita, eta hala badagokio, administrazioarekiko auzien jurisdikzioan aurka eginez gero, errekurtsua jarri ahal izango da hilabeteko epean Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordean, foru arau honen IV. tituluan arautu dena hain zuzen ere".

Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren txostenaren arabera, erreklamazio honetan errekurritutako ebazpena, hau da, Garraioen zuzendariaren 2021eko abuztuaren 2koarekin identifikatzen dena eta Autobuses La Unión enpresak eskatutako informazioa partzialki eskuratzeko aukera ematen duena, 2021eko abuztuaren 4an jakinarazi zitzaion errekurtsogileari.

Ondorioz, erreklamazioa aurkezteko hilabeteko epea

## FUNDAMENTOS DE DERECHO

**PRIMERO.** -\_La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea, ex artículo 27, por la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia.

De conformidad con el artículo 29.1.1, en relación con el artículo 2, ambos de esta Norma Foral, la Comisión de Reclamaciones será la competente para resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública de la Diputación Foral de Bizkaia y los organismos autónomos forales, las entidades públicas empresariales forales, las sociedades mercantiles forales, las fundaciones forales y los consorcios forales y otros entes forales de derecho público distintos de los mencionados anteriormente.

**SEGUNDO.** Con carácter previo al análisis de las cuestiones planteadas por la recurrente debe analizarse si la reclamación ha sido promovida en plazo,

El artículo 24 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia, en su número 5 determina: "Frente a toda resolución expresa o presunta de denegación en materia de acceso, al margen del recurso potestativo de reposición y, en su caso, la impugnación ante la jurisdicción contencioso-administrativa, en el plazo de un mes se podrá interponer un recurso ante la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia, regulada en el Título IV de la presente Norma Foral".

Conforme señala el informe emitido por la Dirección General de Transportes la resolución recurrida en la presente reclamación, y que se identifica con la resolución del director de transportes de 2 de agosto de 2021, que concede parcialmente acceso a la información solicitada por Autobuses la Unión, fue notificada a la recurrente el 4 de agosto de 2021.

En consecuencia, el plazo de un mes para la



irailaren 4an amaituko litzateke. Baina egun hori larunbata izan zen, eta, ondorioz, egun baliogabea, hilaren 5koa bezala, Administrazio Prozedurari buruzko urriaren 2ko 39/2015 Legearen 30.2 artikuluan ezarri denez: *Legez edo Europar Batasuneko Zuzenbidean beste zenbaketarik adierazten ez bada, epeak egunetan adierazten direnean egun baliodunak direla ulertuko da, eta ez dira zenbatuko larunbatak, igandeak eta jaieguntzat jotakoak.*

Aipatutako 30. artikulua 5. zenbakian adierazitakoaren arabera, epea hurrengo egun baliodunera luzatzen dela ulertu behar da, hau da, irailaren 6ra, egun horretan aurkeztu baitzuen erreklamazioa errekurtsogileak posta-bulegoan.

Laburbilduz, erreklamazioa horretarako ezarritako epearen barruan aurkeztu dela ulertu behar da.

**HIRUGARRENA.-** Adierazitako lehenengo gaia aztertzean, hau da, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria Sustatzeko Sailak pertsona eta erakunde interesdunei entzuteko izapiderik ez izatea, Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 23.5 artikulura jo behar dugu: *5. Eskatutako informazioak hirugarrenen eskubide edo interesei eragin badiezaieke, behar bezala identifikatuta, hamabost eguneko epea emango zaie alegazioak egiteko, eta horrek berekin ekarriko du ebazpena emateko epea etetea alegazioak jaso arte edo horiek aurkezteko epea igaro arte.*

*Apirilaren 3ko 51/2012 Dekretuak onartutako Errepideko Bidaiari Garraioaren Erregelamenduak 48. artikuluan ezartzen duenez, erabilera bereziko garraio erregularrak, kontratazio orokorraren bidez, erabiltzaileen talde homogeen eta espezifiko bat zerbitzatzera daude bideratuta, hala nola ikasleak, eskolako umeak, langileak eta antzeko kolektiboak, aurretik ezarritako egutegi, ibilbide eta ordutegi bati lotuta betiere.*

*Erabiltzaileen talde homogeen eta espezifiko hartzen da joan-etorriak ordutegi berdinarekin egiten dituzten eta lana, ikasketak edo antzekoak direla-eta beren etxetik jarduera zentro komun bat helburu duten pertsonen soilik osatzen dutena.*

interposición de la reclamación concluiría el día 4 de septiembre. Pero el citado día fue sábado, y en consecuencia inhábil, al igual que el domingo día 5, tal como previenen el artículo 30.2 de la Ley 39/2015, de 2 de octubre, de Procedimiento Administrativo: *Siempre que por Ley o en el Derecho de la Unión Europea no se exprese otro cómputo, cuando los plazos se señalen por días, se entiende que éstos son hábiles, excluyéndose del cómputo los sábados, los domingos y los declarados festivos.*

En virtud de lo señalado por el número 5 del citado artículo 30, el plazo debe entenderse prorrogado al primer día hábil siguiente, esto es, al 6 de septiembre, fecha en la que la recurrente presentó la reclamación en una oficina de Correos.

En definitiva, debe considerarse que la reclamación ha sido interpuesta dentro del plazo habilitado al efecto.

**TERCERO.-** Entrando en el análisis de la primera de las cuestiones planteadas, falta de trámite de audiencia por parte del Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible, a las personas y entidades interesadas, debemos acudir al artículo 23.5 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia que establece: *5. Si la información solicitada pudiera afectar a derechos o intereses de terceros, debidamente identificados, se conferirá a estos un plazo de quince días para efectuar alegaciones, suponiendo la suspensión del plazo para dictar resolución hasta que se hayan recibido las alegaciones o haya transcurrido el plazo para su presentación.*

El Reglamento de Transporte de Viajeros por Carretera, aprobado por Decreto 51/2012, de 3 de abril, establece en su artículo 48 que *“Los transportes regulares de uso especial están destinados a servir, exclusivamente, mediante su contratación global, a un grupo homogéneo y específico de usuarios, tales como estudiantes, escolares, trabajadores y colectivos similares, con sujeción a un calendario, itinerario y horario preestablecido.*

*Se considera grupo homogéneo y específico de usuarios, el formado exclusivamente por personas que realicen sus desplazamientos con horarios coincidentes y cuyo destino desde su domicilio tenga por objetivo un centro de actividad común por motivo de trabajo, estudios u otros similares.*





Administrazio eskudunak baimenduko ditu erabilera bereziko garraio erregularrak, zerbitzatuko dituzten erabiltzaile-talde espezifikoek "jarduera komuneko zentro" bakarra daukatenean (unibertsitateak, ikastetxea, fabrika edo antzekoa), betiere "jarduera komuneko zentro" hori hainbat establezimendutan sakabanatuta egoteari kalterik egin gabe, non establezimendu horietan baitu garraioak helmuga.

Erregelamendu honen ondorioetarako, erabiltzaile talde espezifiko baten parte izango dira jarduera zentro komunarekin zuzeneko harremana duten guztiak. Baimenaren eskatzaileak erabiltzaileen zerrendaren kopia aurkeztu beharko du, eta, administrazio eskudunak hala eskatzen badu, erabiltzaile talde espezifikoaren lan edo zerbitzu kontratuak, erabiltzaileak jarduera zentro komunarekin zuzeneko harremana duela egiaztatzen dutenak.

Aurreko arauak ikusita, Batzorde honek uste du Garraio Sailak bete egin zuela entzunaldiaren izapidea, zeren eta nahitaezkoa baitzen espedientea agerian jartzea eta alegazioak aurkezteko epea irekitzea Altube eta Nerbioi Aran unibertsitate-elkarteei.

Aipaturiko izapide horretan, Altube Unibertsitate Elkartek alegazioak aurkeztu zituen, eta egindako eskaera onartzearen aurka agertu zen. Nerbioi Aran elkarteak, berriz, idazkia aurkeztu zuen, hain zuzen egitate-oinarrietako laugarrenean jaso dugun moduan, Administrazioak informazio eskaerari erantzun ondoren (abuztuaren 2koa).

Elkarte horiek osatzen dute erabilera bereziko garraio erregularra, eta erabiltzaile eta ikasleen talde homogeen eta espezifikoak ordezkatzeko dute, aurrez ezarritako egutegi, ibilbide eta ordutegiari lotuta.

Bestalde, harrigarria da errekurtsioa jarri duen elkarteak prozeduran interesduen izateari uko egin izana, kontratatzen duen garraio enpresari aitortzen saiatzeko, zerbitzu hori eman diezaion.

**LAUGARRENA.-** Planteatutako funtsezko gaiari

Los transportes regulares de uso especial se autorizarán por la Administración competente cuando los grupos específicos de usuarios a los que vayan a servir tengan un único «centro de actividad común» (universidades, colegio, fábrica u otro similar), sin perjuicio de que el «centro de actividad común» se encuentre disperso en varios establecimientos, en el que el transporte tenga su destino.

Se entenderá que forman parte de un grupo específico de usuarios a los efectos del presente reglamento todos aquéllos que tengan una relación directa con el centro de actividad común. El solicitante de la autorización deberá aportar copia del listado de usuarios y, en caso de que así lo requiera la Administración competente, los contratos de trabajo o de servicios del grupo específico de usuarios que acrediten la relación directa del usuario con el centro de actividad común".

A la vista de la normativa anterior, esta Comisión entiende que el Departamento de Transportes dio cumplimiento al trámite de audiencia a que venía obligado con la puesta de manifiesto del expediente y la apertura de un plazo de alegaciones a las Asociaciones Universitarias Altube, y Nerbioi Aran.

Durante dicho trámite la Asociación Universitaria Altube formuló alegaciones en las que mostro su oposición a que fuera admitida la solicitud causada, en tanto que la Asociación Nerbioi Aran, presentó escrito en los términos que hemos recogido en el número cuarto de los fundamentos de hecho, con posterioridad (6 de agosto) a que fuera contestada la petición de información (2 de agosto) por parte de la Administración.

Dichas Asociaciones son las entidades en las que se integra y las que representan al grupo homogéneo y específico de usuarios, estudiantes, con sujeción a un calendario, itinerario y horario preestablecido, a los que está destinado el transporte regular de uso especial.

De otra parte, no deja de sorprender que la Asociación recurrente rechace su condición de interesada en el procedimiento para intentar reconocérsela a la empresa de transportes a la que contrata para que le preste dicho servicio.

**CUARTA.-** Entrando en la cuestión de fondo



dagokionez, hau da, ea zuzenbidearen araberakoa den Garraioen Zuzendaritza Nagusiaren ebazpena, Altube Unibertsitate Elkarteari eta Nerbioi Aran Unibertsitate Elkarteari 2021 ikasturtean baimendutako ibilbideei, ordutegiei eta geralekuei buruzko informazioa eskuratzeko aukera ematen zuena, erreklamazioan aurkaratua, eta eskatutako gainerako informazioa eskuratzeko aukera baztertuta, adierazpen hauek egin behar ditugu.

Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauak honako hau xedatzen du 17. artikuluan: *1. Herritarrek foru arau honen aplikazio-eremuan ezarritako erakundeen aurrean baliatzen duten informazio publikoa eskuratzeko eskubidea titulu honetan jasotako aurreikuspenen eta aplikatu beharreko legerian xedatutakoaren arabera arautuko da.*

*2. Informazio publikotzat jotzen da edozein eduki edo dokumentu mota, euskarria edozein dela ere, baldin eta foru arau honen aplikazio-eremuan aurreikusitako erakundeen esku badago eta beren funtzioen jardunean egin, aldatu edo eskuratu badute.*

Horrez gain, 18. artikuluan, "Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea" izenekoan, esaten da *informazio publikoa eskuratzeko eskubidea baliatzeko ez dela inolako motibaziorik beharko, eta ez dela egiaztatu beharko interesduna dela edo beste eskubide eta interes legitimorik duela, eta mugak ez direla izango informazio publikoa eskuratzeko eskubidea arautzen duen legeria orokorrean ezarritakoak baino handiagoak. Informazioa eskuratzeari uko egin ahal izango zaio soilik informazio hori eskuratzeko interes publikoari benetako kaltea eragin diezaiokeela edo datu pertsonalak babesteko eskubidea urra dezakeela egiaztatzen denean, kasu bakoitzean kalte horrek izan dezakeen garrantzia haztatuta.*

Hitzez hitz eman dugun erregulaziotik ondorioztatzen denez, informazio publikoa eskuratzearen kasuan, ez da beharrezkoa interesduna izatea informazio hori emateko eskubidea izateko, eta ezin zaio eskatu informazioa eskatu duenari informazioa eskatzeko arrazoiak justifikatu, azaldu edo arrazoitzeko.

planteada, esto es si es ajustada a derecho la resolución de la Dirección General de Transportes impugnada en la reclamación, por la que se concedía el acceso a la información de itinerarios, horarios y paradas autorizadas respecto a la Asociación Universitaria Altube y a la Asociación Universitaria Nerbioi Aran durante el curso 2021, rechazando el acceso al resto de la información solicitada, debemos realizar las siguientes declaraciones.

La Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia en su artículo 17 dispone que: *1. El derecho de acceso a la información pública ejercido por la ciudadanía ante las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral, se regirá por las previsiones recogidas en este Título y por lo dispuesto en la legislación que sea de aplicación.*

*2. Se entiende por información pública cualquier tipo de contenido o documento, independientemente del soporte que se utilice, que obre en poder de las entidades previstas en el ámbito de aplicación de la presente Norma Foral y que hayan sido elaborados, modificados o adquiridos en el ejercicio de sus funciones.*

Añadiendo su artículo 18, que lleva por título "Derecho de acceso a la información pública" que *el ejercicio del derecho de acceso a la información pública no requerirá ningún tipo de motivación, ni acreditar que se dispone de la condición de interesado o que concurre ningún otro derecho e interés legítimo, y que las limitaciones no serán superiores a las establecidas en la legislación general reguladora del ejercicio del derecho de acceso a la información pública. La denegación de acceso a la información sólo se podrá hacer en los casos en que se compruebe que el acceso a esa información puede provocar un daño efectivo al interés público o vulnerar el derecho de protección de datos personales, ponderando en cada caso la transcendencia que ese daño pueda tener".*

De la regulación que hemos transcrito se desprende que cuando se trate de acceso a información pública, no es preciso ostentar la condición de interesado para tener derecho a que la misma sea suministrada, ni cabe exigir al solicitante de la información que justifique, explique o motive las razones por las que solicita el acceso.



Hori guztia, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 53. artikulua aitortutako eskubideei kalterik egin gabe, besteak beste, eskuratzeko eskubideari, administrazio-espedito jakin batean interesdun diren pertsonentzat, Bizkaiko Foru Aldundiak 2020-2021 ikasturtean erabilera orokorreko garraio erregularreko zerbitzua emateko unibertsitate-elkartek kontraturiko operadoreak esleitzeko izapidetutako prozeduran aztertzen den kasuan.

Todo ello sin perjuicio de los derechos reconocidos por el artículo 53 de la Ley 39/2015, de 1 de octubre, entre otros el derecho de acceso, a quienes ostentan la condición de personas interesadas en un concreto expediente administrativo, en el caso que se analiza en el procedimiento tramitado por la Diputación Foral de Bizkaia para el otorgamiento a los operadores contratados por las Asociaciones Universitarias para la prestación del servicio de transporte regular de uso general durante el curso 2020-2021.

Bestetik, Garraioak eta Mugikortasun Jasangarria sustatzeko Sailak bi elkarteei baimendutako ibilbideei, ordutegiari eta geldialdiei buruzko informazioa eman die. Informazio hori publikoa izateaz gain, unibertsitateko elkartek bere ere argitaratzen dute. Informazio hori Euskal Herriko Unibertsitatearen webgunean ere badago, eta honako informazio hau eskaintzen du bere webgunean:

De otra parte, la información a la que el Departamento de Transportes y Movilidad Sostenible ha concedido acceso es la relativa a itinerarios, horarios y paradas autorizadas a las dos Asociaciones, información que no solo tiene el carácter de pública, sino que es publicitada por las propias Asociaciones Universitarias, y que también figura en la página de la Universidad del País Vasco, que en su web ofrece la siguiente información:

ARABA - BIZKAIA	
<b>ALTUBE</b> <a href="http://www.altube.org">www.altube.org</a> General Aizava 10, 6 oficina 2. 01005 Gasteiz. Teléfono: 945-142858 E-mail: <a href="mailto:trabajaj@altube.org">trabajaj@altube.org</a>	<b>Recorrido:</b> Gasteiz - Bilbao (Ingenieros, Devaio, Sarriko) - Leioa.
<b>ASOC. UNIVERSITARIA NERBIOI</b> Teléfono: 945-890804	<b>Recorrido:</b> Amurrio - Lujando - Llodio - Areta - UPV (Leioa). Horarios: 7:05 y 13:10 h. Carnet mensual y anual.
<b>LA UNIÓN</b> <a href="http://www.autobusestaunion.com">www.autobusestaunion.com</a> Plaza Euzkaltzandía, sin. Estación de autobuses. 01002 Gasteiz. Teléfono: 945-264626	<b>Recorrido:</b> Gasteiz - Bilbao - Leioa UPV/ Salidas desde Gasteiz: Campus, Adriano VI, y Estación de autobuses. Bono descuento Bidaide: mensual, trimestral y anual.

ARABA - BIZKAIA	
<b>ALTUBE</b> <a href="http://www.altube.org">www.altube.org</a> General Aizava 10, 6 oficina 2. 01005 Gasteiz. Teléfono: 945-142858 E-mail: <a href="mailto:trabajaj@altube.org">trabajaj@altube.org</a>	<b>Recorrido:</b> Gasteiz - Bilbao (Ingenieros, Devaio, Sarriko) - Leioa.
<b>ASOC. UNIVERSITARIA NERBIOI</b> Teléfono: 945-890804	<b>Recorrido:</b> Amurrio - Lujando - Llodio - Areta - UPV (Leioa). Horarios: 7:05 y 13:10 h. Carnet mensual y anual.
<b>LA UNIÓN</b> <a href="http://www.autobusestaunion.com">www.autobusestaunion.com</a> Plaza Euzkaltzandía, sin. Estación de autobuses. 01002 Gasteiz. Teléfono: 945-264626	<b>Recorrido:</b> Gasteiz - Bilbao - Leioa UPV/ Salidas desde Gasteiz: Campus, Adriano VI, y Estación de autobuses. Bono descuento Bidaide: mensual, trimestral y anual.

Jendaurreko informazioa eskuratzeko ez da beharrezkoa administrazio-prozeduran interesdun izatea, ezta informazio hori eskatzeko arrazoiak azaltzea edo justifikatzea ere, eta, halaber, informazio hori publikoa da, Garraio Sailak Autobuses La Unióni jakinarazia. Hori finkatuta, batzorde honek ezetsi egin behar du aurkeztutako erreklamazioa.

Sentado que el acceso a la información pública no exige la condición de interesado en el procedimiento administrativo, ni la explicación o justificación de las razones que llevan a solicitarla, así como el carácter de pública de la información que ha comunicado a Autobuses La Unión el Departamento de Transportes, esta Comisión de reclamaciones debe desestimar la reclamación interpuesta.

Horregatik guztiagatik, Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzorde honek hau erabaki du:

Por todo lo cual, esta Comisión de reclamaciones en materia de Transparencia, acuerda:

### EBAZPENA

### RESOLUCIÓN

**LEHENENGOA.-** NERBIOI ARAN UNIBERTSITATE ELKARTEAK Bizkaiko Foru Aldundiko Garraioen

**PRIMERO.-** Desestimar la reclamación promovida por la ASOCIACIÓN UNIVERSITARIA NERBIOI



zuzendariaren 2021eko abuztuaren 2ko Ebazpenaren aurka jarritako erreklamazioa ez onartzea. Ebazpen horren bidez, partzialki baietsi zen Autobuses la Union elkarteak egindako informazio publikoa eskuratzeko eskaera.

**BIGARRENA.** - Ebazpen hau interesdunari jakinaraztea. Era berean, Garraioen Zuzendaritza Nagusiari eta Diputatu Nagusiari Laguntzeko Unitateko Gobernu Onaren eta Gardentasunaren Zuzendaritza Nagusiari jakinaraziko zaie.

Ebazpen hau behin betikoa da eta amaiera ematen dio administrazio-bideari eta beraren aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan, BI HILABETEKO epean, ebazpena jakinarazi eta hurrengo egunetik zenbatuta.

Hau guztia Bizkaiko Foru Aldundiaren eta Bizkaiko foru sektore publikoko erakundeen Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen antolakuntza eta funtzionamendu araudia onesten duen Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarri denarekin bat erabaki da.

ARAN, contra la Resolución de 2 de agosto de 2021, del Director de Transportes de la Diputación Foral de Bizkaia, por la que se estimaba parcialmente la solicitud de acceso a la información pública formulada por Autobuses La Unión.

**SEGUNDO.** - Notificar esta resolución a la interesada. Asimismo, se comunicará a la Dirección General de Transportes, y a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia de la Unidad de Apoyo al Diputado General.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

Sin./Fdo.: AMAIA ZURBANO-BEASKOETXEA LARAUDOGOITIA - 2021-11-05  
BATZARKIDEA  
VOCAL

Sin./Fdo.: IÑIGO ALVEAR LECUE - 2021-11-05  
IDAZKARIA  
SECRETARIO